
JOSU LARTATEGIRI

"Mendebaldearen mendebaldea" dalako zutabea orain-tsu ekarri zeuskun Euskaldunon Egunkarira.

Or esaten zenduzan gauza askogaz bat nator betebetea. Beste batzuekaz, ostera, ez.

Nire eritxi apalean —nik ikusten eta igarten dodana, beintzat- mendebalde osoan dago aitatu zenduan gaixotasuna. Ez mendebaldearen mendebaldean bakarrik.

Ez balizko erabiltzaile xeetan bakarrik. Mendebaldearen euskerea ia oso-osoan dago izkuntza terminala izateko bidean.

Mendebaldeko iztun asko ta askok, gorago zein beera-goko maila kulturalakoak izan, euren euskerearenganako zuk aitaturako lotsa eta konplexua ez eze, enbarazua eta alperreko zamea be sentiduten dabez.

Aor dagoz, osterantzean, ETB, irakaskuntzea, erri mailako eta foru administrazioak, prozesu terminal orretan bape lagundu ez dabenak.

Aor dagoz orreetan bearrean dagozan mendebaldar asko eta askoren jarrerea, euron nortasuna markatuten dauan berbetea ostenduteraginokoa. Konplexua, erdaldunakazko zein beste euskaldunakazkoa.

Ze gitxi baloretan dan mendebaldeko euskerea bertan, baina, mendebaldean.

Txakurragaz edo umegorriakaz berba egiteko bestekoa, eta besterik ez. Mendebalde osoko gaixotasun endemikoa.

Mendebaldean izkuntza transmisinoa eten egin da, erabileran zein izkuntza kalitatean, bete-betea eten be.

Mendebaldeko euskerea salbatutea fantasia izango da, baleiteke, baina, a joan eta gero gerokoak.

Eta joan bajoaku, betiko joan be! Au esatea, Josu, neuretako be gogorra da, gogor-gogorra. Mendebaldeko euskera esatea euskera esatea dalako. Nik, ostera, ez dot orretan pasorik egingo!



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

ALARDEAZ OK EGINDA

Irun eta Ondarribiko alardeek neurritik kanpo jo dabe, nire uste apalean. Bagara asko ta asko alardeoi azkenengo urteotan egiten izan jaken larregizko jaramonaz ok egiten asita gagozanak.

Bertakoak ez izategaitik? Eurek lez alardea bizi ez izategaitik? Baleiteke. Zer esanik ez, dalako alarde militarra leengo egunean Bilbora ekarri ebenean.

Nire eritxian, barriro, guztiz lekuz kanpo!

Ez daijala, baina, inork pentsatu protestatzeko eskubidea edo ori egiteko erabilen erea ezegokiak izan dirala esan gura dodanik. Ez. (Compañías, preparen armas!!)

Bilboko Euskalduna jauregiaren kanpoaldean izan nintzan, arteragoko zapatuan, Udalbiltza izango zanaren autetsiei agur beroa egitekotan.

Alango baten, alardearen giroa urreratu ekigun. Urreratu, txalo beroen artean urreratu be. Nora urreratu eta euskal nazino eraikuntzea sendotu eta bideratuteko ekitaldira. Alardea an! (Compañías, carguen armas!!) Sano kafkianoa zan ikuskizuna.

Udalbiltza sortuko eben autetsiek Don Fernando El Católico-ren al ardeari txaloak joten.

Zer pentsatuko eben autetsi nafarrek (arerioak) eta Iparaldekoek (frantsesak) El Católico-ren soldaduak ikusikeran? Bearbada, askotxuk txaloak jo egin be. Ori despiste nazionala! Zertarako kendu dira, bada, Gipuzkoako armarritik kainoiak? (Compañías, apunten armas!!) An egon ziran ikurrindun eta arrano baltzdun asko Duque de Albaren ospea txalotuten.

Despiste itzela be (ezker) abertzaleen artean, gero! Independentziaren aldeko gedarrak entzuten ziran Don Fernando-ren soldadu jantzita egozan andra-gizon askoren agoe-tan.

Alardea euskal estatuaren antitesia izanda, sano kafkianoa egoerea, gero! Ala, ez ete dakie, ango eta orko alarde militarrok euskal estatuaren (Nafarroa) porrota ospatuteko diranik? Despiste istoriko itzela! (Compañías, fuego!!)

INIAKI MARTIARTU
1999ko irailean

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ
